Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

607

AGINDUA, 2008ko abenduaren 23koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Bilboko Bakuva Integración Social fundazioaren sorrera Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Bilboko Bakuva Integración Social fundazioaren sorrera Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko espedientea aztertu da.

AURREKARIAK

1.– Bakuva Integración Social por el Deporte elkarteak Bilboko Bakuva Integración Social fundazioa eratu du, Emilio Fernández-Valdés Cruzat Bilboko notarioaren aurrean (2538 protokolo-zenbakia) 2008ko urriaren 21ean emandako eratze-eskritura publikoaren bidez.

2008ko abenduaren 18an Bilboko José Antonio Isusi Ezcurdia notarioaren (3764 protokolo-zenbakia) aurrean emandakoaren bidez zuzendu zen eskritura publiko hori.

2.– Bilboko Bakuva Integración Social fundazioaren estatutuetako 6. artikuluan xedatutakoari jarraituz, helburu hauek ditu fundazioak:

1) Bazterreko auzoetako bilgune, bizikidetza eta aisialdi zentroak sustatu, finantzatu, kudeatu eta laguntzea, baztertuen gizataldeei laguntza emateko. Beharra dutenak eta gizartetik kanpo geratzeko edo sustraiak galtzeko arriskuan daudenak dira gizatalde horietako kide.

2) Baztertutakoen gizataldeetako kideak gizartean integratzea, alegia, beharra dutenak eta gizartetik kanpo geratzeko edo sustraiak galtzeko arriskuan daudenak elkarbizitzako kultura batean integratzea, giza balioak ezagutuz, onartuz eta praktikan jarriz.

3.– Fundazioaren egoitza, fundazioaren estatutuetako 4. artikuluan adierazten denez, hau da: Rodríguez Arias kalea 17, 1.a - 48008, Bilbao (Bizkaia).

4.– Hasierako dotazioa diruzkoa ez den ondare-ekarpen bat eta diruzkoa den beste bat da —hogeita bat mila (21.000,00) eurokoa—, eta kopuru hori ordaindu dela jasota geratu da erregistro-inskripzioaren espedien-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

607

ORDEN de 23 de diciembre 2008, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la constitución de la «Fundación Bakuva Integración Social», de Bilbao.

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la constitución de la «Fundación Bakuva Integración Social», de Bilbao (Bizkaia), sobre la base de los siguientes

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– Por la «Asociación Bakuva Integración Social por el Deporte» se ha constituido la fundación denominada «Fundación Bakuva Integración Social», de Bilbao, mediante escritura pública de constitución otorgada el 21 de octubre de 2008, ante D. Emilio Fernández-Valdés Cruzat, Notario del Ilustre Colegio de Bilbao (n.º de protocolo: 2538).

Esta escritura pública ha sido subsanada por la otorgada el 18 de diciembre de 2008 ante D. José Antonio Isusi Ezcurdia, Notario del Ilustre Colegio de Bilbao (n.º de protocolo: 3764).

2.– En virtud de lo dispuesto en el artículo 6 de los Estatutos de la «Fundación Bakuva Integración Social», de Bilbao, los fines de la misma son los siguientes:

1) Promoción, financiación, gestión y ayuda asistencial de centros de reunión, encuentro, convivencia y ocio en barrios marginales para ayudar a personas integradas en colectivos desfavorecidos, entendiendo por ello, aquellos que se encuentren en estado de necesidad, de riesgo de exclusión social o desarraigo.

2) La integración, en la sociedad, de personas integradas en colectivos desfavorecidos, entendiendo por ello, aquellos que se encuenten en estado de necesidad, de riesgo de exclusión social o desarraigo, en una cultura de convivencia a través del conocimiento, aceptación y práctica de valores humanos.

3.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 4 de los Estatutos fundacionales, queda fijado en la calle Rodríguez Arias 17, 1.º - 48008, de Bilbao (Bizkaia).

4.– La dotación inicial, que consiste en una aportación patrimonial no dineraria y por una aportación dineraria, asciende a la cantidad de veintiún mil (21.000,00) euros, cuyo aportación, valoración y des-

tean, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroen Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 37. artikuluak.

Ondarea egokitzat eta askitzat jotzen da fundazioaren helburuak lortzeko, Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legearen 12.1 artikuluaren arabera, lege hori aplikatzekoa baita azken xedapenetatik lehenengoaren indarrez.

5.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, Fundazioaren Estatutuetako 25. artikuluan jartzen duen moduan. Patronatua gutxienez hiru kidek eta gehienez hamabostek osatuko dute (11. art.).

6.– Fundazioa eratzeko eskrituran ezarritakoaren arabera, patronatuko kideak hauek izango dira:

embolso es acreditado documentalmente en el expediente de inscripción registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

La dotación patrimonial se acredita como adecuada y suficiente para el cumplimiento de los fines fundacionales, de acuerdo con el artículo 12.1 de la Ley 50/2002, de 26 de diciembre de Fundaciones, de aplicación en virtud de su Disposición final 1.ª.

5.– La representación, administración y gobierno de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito, de acuerdo con el artículo 25 de los Estatutos fundacionales. El Patronato quedará compuesto por un mínimo de tres y un máximo de quince miembros (art. 11).

6.– El Patronato inicial, conforme se establece en la escritura de constitución fundacional, estará integrado por,

Kargua	Patroia	Iraupena
Lehendakaria	Juan Antonio Garteizgogeascoa Iguain	mugagabea
Lehendakariordea	Juan Carlos Grijelmo Mintegui	mugagabea
Idazkaria:	Maria Santos Garteizgogeascoa	mugagabea
Diruzaina	Jaime Axpe Magaña	mugagabea
Bokala	María Pilar Menchón Pacheco	mugagabea
Bokala	María Verónica Garteizgogeascoa Iguain	mugagabea

Cargo	*Patrono*	*Duración*
Presidente	*Juan Antonio Garteizgogeascoa Iguain*	*indefinida*
Vicepresidente	*Juan Carlos Grijelmo Mintegui*	*indefinida*
Secretario	*Maria Santos Garteizgogeascoa*	*indefinida*
Tesorero	*Jaime Axpe Magaña*	*indefinida*
Vocal	*María Pilar Menchón Pacheco*	*indefinida*
Vocal	*María Verónica Garteizgogeascoa Iguain*	*indefinida*

Guztiek onartu dituzte dagozkien karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari dagokio fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala dago aginduta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 4. artikuluan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eskakizunak.

Lege eta arau hauek ikusi dira: indarrean dagoen Konstituzioa; Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretua, eta orokorrean aplikatzekoak diren gainerako arauak. Ondorioz,

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak,

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Gaur, F-235 zenbakiaz, Bilboko Bakuva Integración Social fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira, eta guztiek modu adieraziz onartu dituzte beren karguak.

Bigarrena.– Fundazio hori, dituen helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 2. sekzioan inskribatzea, ongintza-sorospeneko eta lan-arloko fundazioen sekzioan hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2. artikuluan agindutakoaz bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Todos y cada uno de ellos han aceptado sus respectivos cargos conforme las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde al Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social dictar, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y el artículo 4 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y 36 y ss. del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Vistos la Constitución vigente, el Estatuto de Autonomía del País Vasco, la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 100/2007, de 19 de junio, el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio, y demás normas de general y pertinente aplicación.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,

RESUELVE:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de registro F-235, de la constitución de la «Fundación Bakuva Integración Social», de Bilbao (Bizkaia), así como de la composición inicial del Patronato integrado por los miembros que figuran en el antecedente de hecho sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

Segundo.– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 2.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, relativa a las fundaciones benéfico-asistenciales y laborales, conforme lo dispuesto en el artículo 2 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, haren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 23a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante este Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de diciembre de 2008.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.